

ABERTZALEAK

EUSKAL NAZIONALISMOAREN HISTORIAKO EHUN URTE



Aberri-Aldeko Eguneko Irabazija - 1935 Azilla 30 eta Lotazilla 1'ean



FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

ABERTZALETASUNAK



Fundación Sabino Arana

Antolatzaileak: Sancho el Sabio Fundazioa, Caja Vital Kutzaren babesarekin
Sabino Arana Kultur Elkargoa

Laguntzaileak: — Benediktarren Agiritegia (Lazkao)
— Arabako Lurralde Historikoaren Artxiboa ((Vitoria-Gasteiz)
— Bizkaiko Foru Artxiboa
— Gipuzkoako Artxibo Nagusia (Tolosa)
— Espainiako Alderdi Komunistaren Agiritegi Historikoa (Madril)
— Agiritegi Historiko Nazionala. Gerra Zibilaren Saila (Salamanca)
— Gasteizko Udal Artxiboa
— Arxiu Nacional de Catalunya (Bartzelona)
— Biasteriren Adiskideen Elkargoa
— Eusko Ikaskuntza. Historia Garaikideko Dokumentazio Zentroa (Donostia)
— Largo Caballero Fundazioa (Madril)
— Pablo Iglesias Fundazioa (Madril)
— Labayru Ikastegia (Derio)
— Arte Ederretako Museoa (Bilbo)
— Pontevedra-ko Museoa
— Zeinbanakoen zenbait bilduma

Idazkiak: Santiago de Pablo

Discinua: Antonio Ciprés

Argazkilaritza: Miguel Angel Quintas

Erakusketako komisaria: Santiago de Pablo

Fotomekanika: Evagraf eta L'Arte

Moldiztegia: EVAGRAF, S. Coop. Ltda.

Legezko Gordailu: VI-410-95

EUSKAL NAZIONALISMOAREN HISTORIAKO EHUN URTE

Euskal abertzaletasuna Euskal Herriaren historian XX. mendeko gertakari historiko garrantitsuenetakoa da. Eremu politikoan XIX. mendean agertu zelarik, gero beraren presentziak euskal gizartean eragin handia edukitzen segitu du gaur egunera arte, goibehe logikoekin eta diktaduren tarteeekin ere.

HASIERAKOAK

Euskal nazionalismoa 1890ko hamarkadan sortu zuen Sabino Arana Goirik. XIX. mendearen azkenetan Bizkaiaren industrializazioak ekarri zituen aldakuntza ekonomiko eta sozialak, Estatuaren krisia eta 1876ko foru-abolizioak ekarri zituen aldaketak izan ziren haren sorreraren esparrua -hasiera batean Bizkairako eta funtsean Bilborako bakarrik pentsatua-. Sabino Arana 1903an hil zenean EAJ-k zenbait tirandura eta barne arazo gainditu behar izan zituen. Antolaketa-egitura berriztaturik eta gutxienezko egitaraua onetsirik, Gipuzkoara eta, ez horrenbeste, Araba eta Nafarroara hedatu zen. 1923a orduko haren garapen handiko urteak 1917-1919ko mugimendu autonomizalearekin batera izan ziren. Garai horretan euskal nazionalismoak Bizkaiko Aldundia kontrolatu zuen lehenengo bider. Baina, goraldi haren ostean, abertzaletasunak krisi latza jasan zuen, gero ere, Primo de Rivera-ren Diktadura baino gutxi lehenago, zatiketa ekarriz.

ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA

Berriro 1930ean birbaturik, Bigarren Errepublikaren garaian euskal abertzaletasunak egundoko hedapena izan zuen. Bere ezkerrean Euzko Abertzale Ekintza agertzen zelarik, EAJ Euskal Herriko lehenengo alderdi politikoa izatera heldu zen eta Herri guztian hedatzen zen *batzoki-sare* ugaria sortu zuen.

Gainera, urte haiek sektorekako beste antolakunde batzuen garapena ezagutu zuten (Euzko Gaztedia, Emakume Abertzale Batza, ELA-STV eta abar), bai halaber prentsa abertzalearena ere. Hazkunde hau Gerra Zibilak eten zuen, nahiz eta orduantxe onetsi, gatazkaren artean, Autonomi Estatutua eta, lehendakaritzat Jose Antonio Agirre izango zuen aurreneko Euzko Jaurlaritza eratu.

FRANKISMOA

Gerrako derrotak eta diktadura frankistaren hasierak erbestaldira eramane zituzten buruzagi abertzalerik gehienak. Kanpotik Euzko Jaurlaritzak erregimenaren aurkako jarkierak ekintzak antolatu zituen, hala nola 1947 eta 1951ko lanuzte orokorrak. Gero belaunaldi-aldaketa gauzatu zen, hain zuzen ere, nabaria izan zena Agirrereren heriotzearen ostean. Autonomi erakundeek erbestean iraun eta EAJ-k nazioarteko kontaktuak areagotu zituen arren, klandestinitateko ekimen abertzalea gazteagoen eskuetara igaro zen: EGI eta ETA; honen ihardueran hirurogeiko hamarkadaren azken urteetatik aurrera ekintza terroristak nagusituko dira, demokrazia heldzean geratuko ez zirenak, alegia.

DEMOKRAZIA

Frankismoa amaitutakoan berriro bizitza politikoa berreraiki ahal izan zen. Erbesteratuen itzulerak aspaldiko alderdi politikoen berragerpena ekarri zuen, Errepublikako sasoiarekin lotura eginez; aldi berean talde politiko berriak ere sortuko dira. Euskal abertzaletasuna aukera politikoa ezberdinak adierazten zituzten alderdietan zatikaturik zegoen (EAJ, EE eta HB, nagusiki), baina indartsu berragertu zen eta giltzarria izan zen, 1979an Gernikako Estatutua onestera eramango zuen euskal autonomi prozesuan.

KATALOGOA

1. SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA

1. BIZKAYA POR SU INDEPENDENCIA

Bilbo, Sebastian Amorrorturen tipografia. 1892.

2. ARROPA ESKUBILA

Sabino Aranarena.

3. TOXA

Sabino Aranarena omen; S.A., inzialak dauzka.

4. TELEGRAMA

1902. Sabino Aranak Theodore Roosevelt Estatu Batuetako lehendakariari bidalia.

5. ZAPIA

1901. Sabino Aranaren irudia eta euskal lurraldeen banderekin.



6. OROITGARRIA

1903. Sabino Aranaren heriotzearen estampa.

7. IKURRINAREN JATORRIZKO DISEINUA

1894. Sabino eta Luis Aranak egina.

8. EUSKAL XAKERAKO PROIEKTUA

Sabino Aranak eskuz egindako diseinua.

9. IKURRINA

1903. Hilkutxa Sukarrietako hilerria eraman zutenean, Sabino Aranaren paparra estali zuena.

10. ZAPIA

1929. Euskadiren harmarria eta banderekin.

11. MANU EGILEORREN KARIKATURA

1923. Manu Egileorren marrazkia kartoian, espetxean zela. Villazarrek egina.

12. II. ERREPUBLIKAKO OROITGARRIAK

1931-1936. Intsigniak, banderatoak eta gerrikoak errepublikaren eta ikurrinaren koloreekin.

13. PERGAMUA

1932. Begoñako Batzokiak Meltxor Garralda Euzko Gaztedijako lehendakariari ezagumendua.

14. KIKARA ETA PLATERA

II. Errepublika. Sabin Etxean erabili ziren, ikurrinaren koloreekin.

15. EAJ-KO KARNETA

II. Errepublika.

16. IKURRINA

1932. *Emakume Abertzale Batzaren* bandera. Areatzako taldea.

17. GERRA ZIBILEKO PISTOLA

1937. Mauser erdiautomatikoak, ipurdiarekin eta zorroarekin.

18. GUDARIAREN UNIFORMEA

1937. Alkandora, galtzak eta gudu-uhaleria.

19. GUDU TELEGRAFOA

Gerra Zibilean Bizkaiko frontean erabilia.

20. IGAROBIDEA

1938-1939. Euzko Jaurlaritzaren pasaporteak.

21. GUDU TELEFONOA

Gerra Zibilean Bizkaiko frontean erabilia.

22. HORMIRUDIA

1937. Katalunia eta Euskadiren arteko elkertasuna.

23. IKURRINA

1937. Saseta batailoiko *Beti Aurrera* konpainiarena izandakoa.

24. TXANDALA ETA GALTZERDIAK

1937. Zenbait nazioarteko norgehigoka jokatu zuen Euskadiko selekzio eta taldearenak izandakoak.

25. ESPETXEAN

1937. Preso abertzaleek Larrinagako espetxean argitaraturiko aldizkari eskuz idatzia.

26. ESPETXEETAN EGINDAKO GAUZAK

1937-1945. Arrosarioa. Kutxa. Gurutzea. Zilarrezko bihotza. Toxa. Makila. Euskal presoaren irudia, zurez tailatua. Tauleta koloreanitza.

27. MARRAZKIA

1937. Esteban Urkiga *Lauaxetak* espetxean egina.

28. MARRAZKIA

1940. Kataluniako lehendakaria zen Companys-ek egindako marrazkia, Agirre lehendakariari dedikatua.

29. KOADERNOTXO ES-KUZ IDATZIA

Euskal Herriko irudi historikoekin. Gabino Artolozagak espetxean egina.

30. AKUARELA

1940. EAJ-ko preso batek egina. Espetxeko gela.



31. COMPANYS-EN AZKEN GUTUNA

1940. Hil baino gutxi lehenago espetxean idatzia.

32. JOSE ANTONIO AGIRREAREN LANGELA

Paris. Larruzko aulkia. Lanpara. Xukapapera. Grapagailua. Tintontziak. Idazmakina eta Idazkarpeta. *Delegation d'Euskadiren* kartela. Langelaren garaiko argazkia.

33. BILETE FALTSUAK

1957. Propaganda abertzalearen 1.000 pezetako bileteak.

34. KODEAK ARGITZEKO TRESNA

Gerraostea. Klandestinitatean kodedun mezuak argitzeko erabilia.

35. IRRATIDUN MALETA

Gerraostea. Barruan irrati-sistema daukan maleta.

36. MARMOLEZKO HOBI-HARRIA

1960. Jose Antonio Agirre lehendakariaren hilobiko lehenengo hobi-harria.

37. GABON TXARTELAK

Gerraostea. Eskuz idatziak, abertzaletasunaren gaiekin.

38. ESTANPAK

Gerraostea. Otoitz idatziak ikurriekin eta abertzaletasunaren gaiekin.

39. PROPAGANDAKO ZIGILUAK

1965. Sabino Aranaren irudia duten propagandako zigiluen plegua. Zigiluak ezkutuan barrura bidaltzeko erabilitako aldizkariak.

40. VIETNAMITA ETA ESKUORRIAK

Gerraostea. Klandestinitatean eskuorriak inprimatzeko erabilitako makina.

41. ERANSKAILUAK

Frankismo eta trantsizio garaietako propaganda nazionalistarako eranskailu zenbait.

42. HORMIRUDIAK

Aberri Eguna Txilen (1965). *Aberri Egunaren* ospakizuna

(1975). *Ongi Etorri Lehendakari Jauna*. Leizaola lehendakariari ongietorria. Gernikako Estatutua (1979).

43. ZAPIA

1979. Gernikako Estatutuaren alde.

44. SABINO ARANA

Olioia mihisean, Asartaren artailua.

45. ABERRI EGUNA 1932

Olioia mihisean, Garcia Ergüinen artailua.

46. EUSKAL ERROMERIA

Olioia mihisean, Losada-ren artailua.

2. SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA

47. EUSKELDUN BATZOKIYAREN AKTA LIBURUA

1894-1895. Eskuizkribua, Sabino Aranaren izenpekin.



48. EAJ-REN BARNE ANTOLAKETAREN ESKEMA

1932. Luis Arana Goirik egindako eskuizkribua.

49. AGERKARI ABERTZALEAK

Bizkaitarra (1910), *Euzkadi* (1936), *Kendu* (1934), *Tierra Vasca* (1933) eta *Jagi-Jagiren* (1936) aleak.

3. LAZKAOKO BENEDIKTARREN AGIRITEGIA

50. ETAREN ESKUORRIAK

1975. Aberri Egunerako deialdia.

51. EUSKO ABERTZALE EKINTZAREN ESKUORRIA

1979. Gernikako Estatutuaren aurka.

52. EUSKADIKO EZKERREAREN ESKUORRIA

1979. Nafarroa Euskal Estatutuan sartzearen alde.

53. ESEI-REN ESKUORRIA

1979. Gernikako Estatutuaren alde.

54. EUSKADIKO EZKERREAREN HORMIRUDIA

1978. 1978ko Konstituzio espainolari ezetza emateko eskatuz.

55. EIA-REN HORMIRUDIA

Euskadi independentearen alde.

4. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARTXIBOA

56. ARABAREN FORU GUTUNA

1935-1936. Arabarentzako autonomi estatutu probintzibakarraren egitasmoa.

57. HEGO EUSKAL HERRIAREN ESTATUTUA

1932. Lau lurraldeentzako estatutuaren egitasmoa.

5. BIZKAIKO FORU ARTXIBOA

58. BALMASEDAKO UDALAREN IDAZKIA

Protesta eginez, dirudienez enplegua euskara zekitenei bakarrik eskaintzen zien Bizkaiko Aldundiaren erabaki baten aurka eta Enkarterrietan euskara-eskolak ezartzeko eskatuz.

59. EUSKO GAZTEDIAREN IDAZKIA

Bizkaiko Aldundiari zuzendua, Bizkaiaren Independentziaren Egunaren Jaia ezartzeko eskatuz.

6. GIPUZKOAKO ARTXIBO NAGUSIA

60. EUSKARA ESKOLAREN OROIT IDAZKIA

1926-1927. Donostiako euskarazko Hizkuntza eta Deklamazio Eskolaren oroit-idazki eskuz idatzia.

61. GIPUZKOAKO LURRALDE BATZORDEAREN ADIERAZKINA

1918. Gipuzkoako udalei adierazkina euskaraz eta gaztelaniaz, Eusko Ikaskuntza- Sociedad de Estudios Vascos eratzeari buruzkoa.

7. ESPAINIAKO ALDERDI KOMUNISTAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

62. ETA-REN ESKUORRIA

Soutenez la Résistance de Euskadi.

63. ERBESTALDIKO EUZKO JAURLARITZAREN ESKUORRIA

1947. Gernika bonbardatu zen egunaren urteurrenari buruzko orriska.

64. EGI-REN ESKUORRIA

Batasunaren Oinarriak.

65. EUSKADIKO ALDERDI KOMUNISTAREN FOILETOA

1937. *Por la libertad de Euskadi dentro de las libertades de España.*



8. AGIRITEGI HISTORIKO NAZIONA-

LA. GERRA ZIBILAREN SAILA

66. GASTEIZKO EAE-REN URI BATZARRA

1931. Gasteizko Euzko Abertzale Ekintzaren Uri Batzarraren gutuna alderdiaren Nazio Batzordeari.

67. EAE-RI ZUZENDURIKO TELEGRAMA

1931. Milanetik Bilboko EAE-ren Batzordeari bidalitako telegrama, zorionak emanaz alderdiari II. Errepublikari aldarrikatu delako.

68. EAE-REN HAUTESKUNDE ESKUORRIA

II. Errepublika. *Al cuerpo electoral de Bizkaia.*

69. GERRA ZIBILEKO BE-REIZGARRIAK

1936-1937. Euzkadiko Intendentzia Militarreko, Poliziako, Bizkaiko Ordena Publikoko eta Euzko Gudarikotxo txapak. Harro marria brodatutako duen bandera.

70. ERREPUBLIKAKO ETA GERRA ZIBILEKO PROPAGANDA POSTALAK

1931-1937. Euzkadiri Laguntzeko Batzordea. Espainia antifaxistaren ikurrak. *Lege Zarrak/Fueros.* Euzkadiko Gobernuaren Bartzelonako Propaganda Bulegoa. *Eusko Abendearen Ereserkiya.*

71. GERRA ZIBILEKO HORMIRUDIA

1937. Valentziak Euzkadiri goratzarre (Arteta).

72. II. ERREPUBLIKAKO HORMIRUDIA

1936. Otsaileko legegintzarako hauteskundeetan eskuineko blokeak egindako propaganda antinazionalistaren hormirudia.

9. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

73. EUSKAL ESTATUTUAREN EGITASMOA

1933. Azaroaren Seko erreferendumean Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian onetsitako Euskal Estatutuaren egitasmoaren ale ofiziala.

10. ARXIU NACIONAL DE CATALUNYA

74. PACTE D' ALIANÇA ENTRE ELS PATRIOTES DE CATALUNYA, EUZKADI Y GALICIA

1923. Acció Catalanak aurkezturik, hiru herrialdeetako nazionalisten elkartasunerako aurreproiektua. Macià Fondoa.

75. EAJ-REN MITINERA DEIALDIA

1931. Debako EAJ-ren deialdia mitin batera joateko. Macià Fondoa.

76. EAJ-REN GUTUNA FRANCESC MACIA-RI

1931. EAJ-ren batzorde baten aurkezpen-gutuna Bartzelonan. Macià Fondoa.


77. LENAGO IL

1929. *Lenago Il* aldizkariaren 1. zenbakia; Donibane Lohizunen argitaratuta dago Primo de Rivera-ren Diktaduran.

11. BIASTERIREN ADISKIDEEN ELKARGOA

78. EAE-REN IKURRA

1937. Euzko Abertzale Ekintzaren anagrama larruan.



79. GERRA ZIBILEKO ZAPIA
1936. Zetazko zapi nazionalista euskalduna.

80. IKURRINA
1936. Euskal motorizatu armada-
ren ikurrin hirukia.



**12. EUSKO IKAS-
KUNTZA. EUSKAL
HERRIKO HISTO-
RIA GARAIKIDE-
KO DOKUMENTA-
ZIO ZENTROA**

**81. ASKAPENERAKO EUS-
KAL FRONTE NAZIONALA-
REN ESKUORRIA**
1961. Manuel Irujo Fondoa.

**82. EUSKAL APAIZTERIA-
REN LIBURUSKA**
1961. Apaiz-talde batek Paulo
VI.ari bidalitako *El caso vasco*
izenburudun liburuska. Manuel
Irujo Fondoa.

**83. MARRAZKI ETA AR-
GAZKI ALBUMA**
Gerraostean Frantzian zeuden
euskal errefuxiatuentzako babes-
etxeen albuma.

84. ENBATA
1961. Iparraldean argitaraturiko
Enbata aldizkari abertzalearen 2.
zenbakia.

85. ESKUORRIA
1975. *Salvemos a Garmendia y*
Otaegi. Eva Forest Fondoa.

86. L'UNITA
1975. Egunkari komunista italiarra-
ren irailaren 28ko alea, Txiki eta
Otaegiren fusilamenduengatik protes-
ta egiten duena. Eva Forest Fondoa.

**13. LARGO CABA-
LLERO FUNDAZIOA**

**87. ELA/STV-REN ESKUO-
RRIAK**
1947. Huelga orokorrerako deial-
dia. Boikota Euskadiko hautes-
kunde sindikal frankistei.

**88. ELA-STV, UGT ETA
CNT-K ELKARREKIN ATE-
RATAKO ESKUORRIAK**
Gerraostea. *La Alianza Sindical*.
A la clase obrera, al pueblo. A los
trabajadores y demócratas de
Euskadi.

**14. PABLO IGLESIAS
FUNDAZIOA**

**89. EUZKADIKO ALDERDI
KOMUNISTAREN ESKUO-
RRIA**
Gerraostea. *El Partido Comunista*
de Euzkadi y la unidad vasca.
*Ante el Pacto firmado por algu-
nas organizaciones vascas*.

90. EUZKADI ALDIZKARIA
1974. Apirilako ale berezia, Jesus
Maria Leizaolak Gernikara egin-
dako ezkutuko bisitaz.

**91. EUZKADI MENDIGO-
XALE BATZA**
1958. Erbestaldiko *Mendigoxaleen*
Federakundeak egindako *Al Con-
greso del Partido Socialista*
Obrero Español jakinarazpena.

**15. LABAYRU IKAS-
TEGIA**

**92. EUZKADIREN HORMI-
RUDIA**
II. Errepublika. *Euzkadi* egunkari
abertzalearen propaganda-kartela.

**16. BILBOKO ARTE
EDERRETAKO MU-
SEOA**

**93. II. ERREPUBLIKAKO
ETA GERRA ZIBILEKO
HORMIRUDIAK**

1928-1937. *Aberri Eguna*
1932 (Martinez Ortiz). Euskal
Estatutua (Txiki). *Aberri Eguna*
Gasteiz. Gudari. *Saski Naski*
(Pedro Antequera).

**17. PONTEVEDRA-
KO MUSEOA**

**94. GUTUN IREKIA EUS-
KALDUNEI**
1945. Alfonso R. Castelao gali-
ziar buruzagiaren eskuizkribua.

**95. GERNIKARI OMENAL-
DIA**
1945. Alfonso R. Castelao galiziar
buruzagiak Montevideo-n eman-
dako hitzaldiaren eskuizkribua.



**18. ZEINBANAKOEN
ZENBAIT BILDUMA**

**96. ERESOINKAREN JAN-
TZIAK**
1938. *Eresoinka* dantza-taldearen
jantzia. Cuñado Oñate familia.

97. HORMIRUDIA
Sota konpainiaren hormirudia.
Jose Maria de la Sota-ren langela.

**98. ERESOINKAREN HOR-
MIRUDIA**
1938. Gueزالak egina eta dantza-
taldeko kide guztiek izenpetua.
Jose Maria de la Sota-ren langela.

99. ESKUORRIA
1933. Gorteetarako hautagai-
zerrenda nazionalistaren eskuo-
rria Nafarroan. Arteclío (Iruñea).

100. ADIERAZPENA
1925. *Euskeraren Adiskideak*-ek
egindako adierazpen elebiduna.
Arteclío (Iruñea).



ABERTZALETASUNAK



Fundación Sabino Arana



F U N D A C I O N

Caja Vital Kutxa

F U N D A Z I O A

ERAKUSKETA

Foru Artxibategiko Erakustaretoa
M.^a Díaz de Haro, 11 - BILBO

1995eko Urriaren 2tik 28ra

Goizez: 10-13

Arratsaldez: 16-21

Larunbat arratsaldez eta igandeetan, itxita



Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Cultura